

DIRU-ITURRIAK

Proiektu hau aurrera eramateko behar den dirua gehienbat guk (bazkideak) egindako diru-sarrerak izango dira kapital moduan:

-Janire 1.000€ ekarpena

-Eneritz 1.000€ ekarpena

-Nahia 1.000€ ekarpena

-Alaitz 1.000€ ekarpena

Hau da, guztira proiektuari hasiera emateko **4.000€** izango ditugu.

Diru hau materiala erosteko,webgunea irekitzeko,produktua salduko dugun dendari ordaintzeko, zergak ordaintzeko.. erabiliko dugu.



Gure ustez, egindako ekarpena nahikoa izango da. Horrela ez izatekotan, banku bati **mailegu** bat eskatu beharko genioke.

Denborarekin, saldutako produktuekin **irabazitako dirua** ere (3.000€ hilabetero) erabiliko dugu dendari gure produktuak saltzeagatik eskatzen duten dirua ordaindu ahal izateko. Produktua egiteko behar den materiala oso garestia ez denez eta lokal fisiko propioa ez izatean, gastuak asko murrizten dira eta diru horrekin nahikoa izango litzateke.



Baita, diru-iturri bezala izan genezake edozein **diru-laguntza** autonomoak izateagatik edo edozein **inbersorearen** ekarpena.